

Atez atekoa errefusatu du PSE-k

- 5. kontenedorearen aldeko mozioa aurkeztu du udal talde sozialistak
- Udal gobernu berriaren kudeaketa hutsa salatu du Jesus Zaballosek



Imanol Kaskante udaltzainak urrea lortu du polizien Olinpiadan

Imanol Kaskante herriko udaltzainak urrezko eta zilarrezko dominak ekarri ditu New Yorkeko Polizia eta Suhiltzaileen Olinpiar Jokoetatik. San Pedro, Astillero, Hondarribia eta Urdaibain aritutako arraunlaria bigarren izan zen ergometroan bakarka eta lehenengo AEBko neska batekn proba mistoan. /8 orrialdea

Zaborren kudeaketa dela eta lehen bait lehen bosgarren edukiontzia herrian ezartzeko mozioa aurkeztu du udal talde sozialistak

Jesus Zaballos alkate ohiak agerraldia egin zuen ostiralean mozioaren nondik norakoak azaltzeko. Honetan besteak beste udala eta San Marko Mankomunitatearen arteko hitzarmena sinatzea eskatzen da, herrian 5. kontenedorearekin proiektu pilotu bat martxan jar dadin.

Halaber, 2012ko aurrekontutan proiektua gauzatu ahal izateko diru kopuru jakin bat aurreikustea jasotzen du mozioak. Zaballosen hitzetan sistema honen alde eginen du alderdi sozialistak Hernani eta Usurbilen martxan dagoen atez atekoarekin "benetako

arazoak" daudelako. "Herri hauetako kaleetan garbitasun falta somatzen da eta gainera herritarrentzat zaborraren kostuak nabarmen garestitu dira."

Hurrengo plenoan, mozioa eztabaidatuko da eta sozialisten ustetan, beste alderdi politiko batzuen aldeko bozka jasoko du. Aipatu behar da, mozioak aurreko legegaldian PSEk atez atekoaren alde onartutakoa bertan behera uzteko eskatzen duela.

100 egun

Zaballosek, udal gobernu berria lanean dagoela 100 egun bete direnaren, honen balorazioa egin nahi izan du. Talde sozialistaren ustetan kudeaketa "hutsa" burutzen ari da udal gobernuak. Izan ere, "orain arte guk onartuta-



Jesus Zaballos sozialista herrian PSEk banatu duen dokumentua eskutan duela.

ko proiektuak martxan jarri eta alkatetzan ginela eginen genituen ekintza berdina burutu dituzte, Mugikortasunaren Astekoak adibidez".

Sozialistentzat herritarren artean ez da gobernu aldaketa errealik somatzen eta behingoz lanean hasteko eskatu die

udal ordezkari berriei.

"Lau urtetan kudeaketa ona egin daiteke" esan eta adibide gisa jarri zituen euren gobernuak gauzaturako proiektuak. Hauek herritarren artean banaturako dokumentuan jaso dituzte "egindako lan onaren adibide izan daitezten". •

Bermejoren bakarrizketa Abend aretoan

Mikel Bermejo monogistak emanaldi entregin-garria eskaini zuen ostiral gauen Abend-en. Jende asko bertaratu zen herritarren saioa ikusteko eta ikusleen barre algarak ugari izan ziren emanaldi osoan zehar. Zenbait momentutan, publikoaren laguntza eskatu zuen eta besteak beste, bere aita igo zen Abend-eko oholtzara show txiki bat osatzeko. Azkenaldian, Madrilen ibili da Bermejo emanaldiak eskaintzen eta ostegunean bertan, Eibarran izan zen. /8 orrialdea



Mikel Bermejok barre eginarazteko duen talentua agerian geratu zen ostiraleko saioan.

ALBISTEA /2

Bidegorri sarea eta bizikletaren erabilera zabaldu nahi ditu Udalak

ALBISTEA /3

Ikasturtea hastear da Danok Kide guraso elkartearen

KIROLA /4

Jende ugari ibili da Loidi-Barrengo Stock Azokan

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzuta

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateaa



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

Nerea Sanchez Lasarte-Oriako alkateordea

‘Ibilgailu eta bizikletaren arteko harremana aldatu beharko da agian’

Bidegorri sarea eta bizikletaren erabilera zabaltzeko eta bultzatu nahi ditu Udalak herrian

Mugikortasun astearen harira herrian bidegorri sarea eta bizikletaren erabilera sustatzeko udal gobernuak etorkizunean hartu nahi lituzkeen erabakiei buruz hitz egin dugu Nerea Sanchez alkateordearekin, hain juxtu mundu osoa mugikortasun iraunkorraren astea ospatzen denean. Ostiralean Bizikleta festa egin zen Oken-
do inguruan.

Maidar AZURMENDI

Bizikleten presentzia herrian garrantzia izatea nahi dute udaletik eta horretarako, bidegorri sarea zabaltzeko baita hauek egiterik ez dauden zonaldeetan irtenbideak bilatzea dute helburu udal gobernuak kideek.

Udaletik bizikletaren erabilera bultzatzeaz gain, garraio publikoaren aldeko apustu sendoa egin nahi da. Honekin lotuta, garraio publikoaren erabilera sustatzeko, udalak Mugigipuzkoa enpresarekin batera, autobus eta tren linea zein ordu-tegi guztiak jasotzen dituen triptiko bat argitaratu du.

Guztira 4.000 ale izango dira lehen tirada batean Kiroldegi, Kultur Etxe eta herriko dendetan herritarrentzat doan eskuragarri jarriko direnak. Horretaz gain, udaletxeko web orrian ere egongo da nahi duenak etxetik kontsultatu edota inprimatzeko.

Bizikletari lekua egin

Bizikletaren erabilera dago-kionez, herriko bidegorrien lehen azterketa bat egin du udal gobernu berriak, izan ere bizikletak herrian lekua izatea nahi dute. Azterketa honetan agerian geratu dira herriko zenbait lekutan bidegorriak gauzatzeko dauden benetako zailtasunak, adibidez Zumaburu zatian, hauek ikusita irtenbideak bilatzeko lanetan hasi dira.

Orain arte bidegorriak eraikitzeak espaloiak erabili dira, oinezkoen eta bizikletaren arteko elkarbizitza bultzatu da eta orain "planteamendu berriak egiteko ordua iritsi da eta agian ibilgailu eta bizikletaren arteko harremana aldatu beharko da. Europako hiriburu askotako adibideari jarraituz, bizikletek herri barruko errepideetan presentzia eduki beharko lukete." Teknikoki oraindik landu beharreko

idea dela azpimarratu du Nerea Sanchez-ek baina kostu aldetik, bidegorriak eraikitzea baino merkeagoa ere aterako litzaioke udalari honen hitzetan.

Herrian gauzatzeko dauden plangintza berrietan bidegorriak txertatuta daude baina hauekiko batzuk denboran luze joango direnez, beste irtenbide batzuk bilatu beharko dira. Goiegiko bidegorria urtea bukatu aurretik martxan egotea espero dute baina Zabaleta Berri inguruko lanak esaterako, luze joango dira eta bitartean bertatik bizikletan ibili ahal izateko irtenbideak bilatzeko lanetan da udaletxea.

Herri barruko desplazamendutan bizikletaren erabilera sustatu nahi da eta zinegotziaren ustetan herriak badu abantaila garrantzitsu bat, "oso luzea eta nahikoa laua da" eta alde horretatik, erraza gertatzen da bizikletan ibiltzea". Bidegorri sarea luzatu den neurrian beste behar batzuk sortu dira erabiltzaileen artean. Bizikletak aparkatzeko guneak esaterako, gehiagoren beharra dago, "datorren urtera begira egingo dira izan ere, aurtengo aurrekontuarekin oso lotuta gaude eta gastuak asko neurtu behar dira."



Askatasunaren parkea berrian zehar duela gutxi zabaltu den bidegorri zatia.



Herriko hainbat lekutan datorren urtean bizikletak uzteko gune berriak jarriko direla aurreratu du Nerea Sanchez alkateordeak.



Añõgarekin lotura

Herritarren aspaldiko eskaera bat da Añõgarekin lotzen duen bide bat egotearena. Proiektuak urteak daramatza mahai gainean baina gauzatze datarik ez du orain arte izan. Udaletxeak duen azken berria 2012an hau eraikitzen has daitezkeela da Nerea Sanchez-ek azaldu digunez. Gipuzko-

an bidegorrien bi sare nagusi daude bat tokikoa edo lokala eta bestea Forala deritzona, lehenengoa udaletxei dago-kie gauzatzea eta bigarrenaren ardura berriz, Aldundiari dagokio.

Kasu honetan, Errekaldeko zatia Aldundiarena da eta honek gauzatu behar du bidea. Lasarte Añõrga lotura horretan

gainera Atsobakarren, bidegorri zati bat egin beharko litzateke eta hain juxtu zati hori Usurbilgo udalaren eremua da. Dena den, alkateordearen hitzetan Aldundiak egiten duena oso gertutik jarraituko dute udaletxetik "aspaldiko proiektu bat izanda, lehen bait lehen gauzatzea nahi genuke herritarren mesederako."•



Ederki pasa zuten haurrek ostiraleko bizikleta festan.-

Oken-do plaza txirringaz bete zen ostiralean arratsaldeko lehenengo ordutik. Lehenik, herriko kaleetatik barrena ibili ziren etxeko txikiak. Jarraian, gaztekoen txanda izan zen. Hauek Plazaolako bidea, Ori auzoa eta erdialdetik ibili ziren. Azkenik, plazan bertan, ginkana, zinta jolasa edo zirkuitua izan zituzten. Herriko gaztetxoek primeran igaro zuten arratsaldea. •



Landarbaso abesbatza Tolosako abesbatzen lehiaketarako prestatzen ari da. Bertan aurkeztuko duten egitaraua eskainiko dute.

Ikasturtea hastear da Danok Kide guraso elkarteak

- Helduentzako ikastaroetan izena emateko epea ireki du
- VII. Musika Topaketak ostiralean hasiko dira Landarbaso abesbatzarekin ■ Ekintza ugari burutuko ditu urtean zehar

Danok Kide Gurasoen elkarteak 2011-2012 ikasturteko ekintzak prestatzen hasi da.

Hezkuntza iraunkorreko ikastaroko izena ematea ireki du eta VII. Musika Topaketen lehenengo kontzertua ere prestatu du.

Urtean zehar, balioen inguruko hitzaldi zikloa eta zinema zikloa ere antolatzen dute.

Aurten gainera zinema zikloari beste ikuspegi bat eman nahi diotela aipatu digute arduradunek, "Donostiako Itsaspeko Zinema zikloko pelikula ekartzen saiatuko gara."

"Gai interesgarriak jorratzen dira pelikula horietan eta horrela, ikusleei hain trasteak iruditzen zaizkien gaiak alde batera uzten ditugu," adierazi dute.

Hezkuntza iraunkorra

Honela, aipatu bezala, aurreko bederati urteetan egindakoari jarraituz, 50 urte baino gehiagoko pertsonen hezkuntza iraunkorrerako ikastarora antolatu du.

Ikasturtea urriaren 18an hasiko da eta 2012ko maiatzaren 17an izango du amaiera.

Elkarteko arduradunek azaldu dutenez, ikastaroak 120 ordu iraungo ditu. "Honetan gai desberdinak jorratzen dira, artea, musika, Euskal Herriko historia edo erlijioarekin zer ikusia dutenak," esan dute.

Eta ikasitakoa osatzeko inguruko museoetara itereerak ere izango direla aipatu digute.

"Irungo Oiasso museora joateko asmoa dago edo San Telmo museo berritura. Eta urte amaieran txango bat ere egiten dugu," adierazi digute.



Ikastaroan iazko kopurua handitu nahi dute aurten. Hogei bat lagun bildu ziren.

Klaseak astearte eta ostegunetan emango dira, goizez, 10:00etatik 13:00etara, elkarrearen egoitzan, Blas de Lezo 13 baxua.

Izena ematea

Danok Kideko arduradunek azaldu digutenez, "azken urteetan hogeitun bat pertsona bildu dira. Baina aurten jendeak agertu digun interesagatik, gehiago espero dugu".

Ikastaroan izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko elkarteko telefono zenbakira, 943 371 616, deitu behar dute interesatuek, astelehenetik ostegunera, 10:30etik 12:30era.

Musika Topaketak

Era berean, Danok Kide elkarteak antolatzen duen VII. Musika topaketak ere hastear dira.

"Aurten lau edo bost kontzertu antolatuko ditugu. Hauetan, musika talde desberdinak nahastan saiatuko gara, kamara taldeak, ahots taldeak eta abar" adierazi dute.

Tolosako lehiaketa

Lehenengo saioa ostiralean irailaren 30ean izango da, 19:30ean. Emanaldi honetan, Landarbaso abesbatza izango da Brigitarren komentuko kaperan.

Kontzertu berezia da Errenteriako koruarentzat. Tolosako Abesbatzen lehiaketan parte hartzeko hilabete geratzen zaio eta txapelketa egitaraua nola dagoen aztertzeke hainbat kontzertu eskainiko ditu, horien artean gure herrikoa.

Amaia Dorronsoro pianoan

Iñaki Tolaretxipik zuzentzen duen taldea polifonia eta folklore sailletan lehiatuko da. Horregatik, besteak beste, atal hauetako derrigorrezko lanak diren Josep Vilaren *Sanctus Benedictus* eta Xabier Sarasolaren *Zuk zure ama* doinuak edo Durufleren *Ubi Caritas* entzun ahaliko dira komentuko kaperan.

Gainera, lan hauetako batzuetan abesbatzako kide den Amaia Dorronsoro piano jole lasarteoriatarren laguntza izango dute. •

ZERO SETTE ORKESTRA

Akordeoi kontzertuko sarrerak salgai

Zero Sette Akordeoi Orkestrak Udalaren laguntzarekin, antolatzen duen Lasarte-Oriako VIII. Akordeoi Jaialdirako txartelak gaurtik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxeko sarrerak salgai daude, 2 eurotan. Urriaren 1ean, arratsaldeko 19:30ean herriko Zero Sette orkestrak eskainiko duen kontzertuan urtero bezala akordeoi munduan ospe handiko gonbidatuak izango dira. •

UDALEKUAK

Arropa galdua

Udako txoko eta udalekueetan egon diren haurren gurusoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke Ludotekara. Arropa urriaren 14ra arte jaso ahal izango da astelehenetik ostiralera arratsaldetan. •

KIROLA

Helduentzako igeriketa ikastaroa

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak urriaren 3tik azaroaren 18a bitartean igeriketan trebatzeko aukera luzatu nahi die herriko helduei. Hastapen eta erdi mailako ikastaroa astean hiru egunetan jorratuko da, astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 20:30etan hasiz.

Izena emateko azken eguna irailaren 30a, ostirala da. Interes duenak Kiroldegiko bulegotik pasa edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu beharko du. •

FUTBOL PORRA

Ostadarreko txartelak urriak 8ra arte

Ostadar K.F.ak Futbol Ligako 2011-2012 denboraldiko lehenengo itzuliaren porra antolatu du. Boletoak eta oinarriak irailaren 30etik gongoz dira ohiko tabernatan. Urriak 8ko 16:00ak arte bete eta utzi ahaliko dira tiketak. •

IKASTAROA

Janariekin lanean ikasteko aukera

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Sailarekin elkarlanean, ikastaro bat emango du, arrisku handiko janariak erabiltzen ikasteko.

Janari maneiatzaile ikastaro berri hau ostalaritza arloari zuzenduta dago, eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko gai eta edukiak jorratuko ditu.

Ikastaroa, asteazkenean, irailaren 28an emango da arratsaldeko 16:00etik 20:00era bitartean Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan.

Prezioa 45 eurokoa da pertsonako, baina beherapena izango dute soldatapeko langile eta langabetuek (hauek 35 euro ordainduko dituzte). Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu KIUB(OMIC) Kontsumitzaileen Bulegora, 943361605 telefono zenbakira edota Elkolab kooperatibara, 943533303 zenbakira. •



KONTZERTUA

Giranice Jalgi Kafe Antzokian

Orioko Giranice taldeak jo zuen ostiral gauean Jalgi tabernan udako parentesiaren ondoren Kafe Antzokiaren denboraldi berria estreinatuz.

Ostiral gauean Jalgiko kontzertuan izan zirenek oriotarren doinu bortitz eta leunen nahasketaz gozatzeko aukera izan zuten. Talde berria, proiektu oso ezberdinetan ibilitako bost lagunek sortu zuten, eta aipagarria da gitarra eta bateriarekin batera bibolinaren erabilera. Iñaki Gurrutxaga bertsolari, idazle eta musikaria da aldeko partaide.



Loidi-Barrengo frontoian burutu da aurten lehenengo aldiz IV. Stock Azoka, Michelingo guneari lekukoa hartuta.



Salmenten balantzea positiboa izan da dendarien esanetan.

Aukera ugari Stock Azokan

Lasarteoriatar askok bisitatu du Loidi-Barrengo pilotalekuan lehenengoz egin den IV. Stock Azoka ■ Aterpea elkarteko antolatzaileak pozik dira ekitaldiak izan duen erantzunarekin

Jon ALTUNA EGITEGI

Larunbata eta igandean Loidi-Barrengo frontoian burutu zen Aterpeak antolatzen duen urteroko Stock Azoka. Aurten, IV. edizioa zuen azokak eta lehenengoz kokatu dute Loidi-Barrenen, Michelingo guneari lekukoa hartuz. Antolatzaileek eguraldi txarrari beldur bazioten ere, eguraldi txukuna izan dute lagun asteburu osoan zehar eta jendearen harrera ona izan dela esan digute.

Guztira hemezortzi postu jarri dituzte aurten. Horietaik bost herrikoak izan dira: Bazar Abreu, Alda bitxidenda, Kynay, Ttipi-Ttapa haurren moda eta El Ajuar del Bebé umeen arropa. Gainontzekoak Euskal Herriko leku

desberdinetatik etorri dira Lasarte-Oriara. Esate baterako, Tolosa, Zarautz, Berriz eta Durangotik etorritako dendariak euren postua jartzeko aukera izan dute.

Gainera, aurtengoan herri-gunetik gertuago ospatu denez, jende gehiagoren presentzia nabaritu dutela esan digu azokaren arduradun eta Aterpea elkarteko lehendakari Olga García: "Bagenuen beldur pixka bat jendeak nola erantzungo ote zuen, baina zorionez, jende askok bisitatu du stock azoka eta balantzea positiboa izan da".

Antolakuntzatik helarazi dizkiguten datuen arabera, 1.500 pertsona inguru ibili dira Loidi-Barrenen Stock Azokak iraun duen bi egunetan.

Stock Azokara sartu nahi zuen orok euro bat ordaindu

beharra zeukan, baina txartel txiki bat bete eta sei afariren zozketan sartuko zen automatikoki. Sari banaketa igande arratsaldean egin zuten Loidi-Barrengo pilotalekuan.

Zozketaren emaitzak

Sariak eta sarituen izenak honako hauek izan ziren: Martín Berasategi jatetxean bi lagunentzako afaria, Rubén Dominguezentzat izan zen. Dakarako bi pertsonentzako bi afariak berriz, Naroa Iartza eta Dolores Catanirentzat izan ziren. Orioko Balea Hotelean aste-bukaera baterako "relax" zirkuitua eta afaria Maximinori egokitu zitzaion.

Azkenik, Balea Hotelean astean zehar erabiltzeko bi txartelak Izarne Aranburu eta Inma Sanchezi egokitu zitzaizkien. •



Denetarikoz gauzak aurki zitezkeen stock azokan.



Erosle eta saltzaileak tratuan ibili ziren asteburu osoan zehar.



Gurasoek erosketak egin bitartean, umeek haien prestaturiko gune batean jolas zezaketen.



Jendeak arretaz entzun zituen "Euskal Herriko baserrien arkitektura" hitzaldian emandako azalpenak.



Bi auzokide sardinak prestatzen.

Udazkenari ongi etorria egin diote Zabaleta auzoan

Sardina-jana dastatu eta Ainhoa Neberuelaren "Baserrien Arkitektura" hitzaldiaz gozatu ahal izan zuten ostiral iluntzean

Zabaleta auzoko bizilagunek udari adio eta udazkenari kaixo esan nahi izan zituen ostiraleko Udazken Festan.

Horretarako, sardina-jana prestatu zuten Zabaletako Antonio Blas plazan. Edateko, nahi beste ardo eta sagardo dastatu ahal izan zituzten plazara hurbildu ziren 50 auzokideek eta giro goxoa igaro zuten udazkeneko lehen ilunabarra.

Aurretik, ordea, Ainhoa Neberuela bizkaitarrak baserrien arkitekturari buruzko hitzaldi interesgarria eskaini zuen. 1500. urtetik hasita, 1890. urtera arte Euskal Herrian egon diren baserri motak erreparatu zituen, aroan aroko berezitasun eta xehetasunak bertaratutako 25 bat lagunei azalduz.

Bitxikeria gisa, aipatu zuen baserriak sagardoa egiteko fabrika handiak zirela. Bertan

langileak bizi arren, ez omen zuten etxebizitza izatearen funtzioa, fabrika baten modura funtzionatzen zutela nagusiki. Beraz, funtzio horren baitan zeuden antolatuak etxebizitza bera, egongelak, abereen ikuilua, leihoak eta abar.

Horregatik, Gipuzkoako baserri guztiek dolarea zuten egitura nagusi bezala, baserria zutik eusteko pieza nagusia zena. •



Bertaratu zirenek sardinaz gain, sagardoa eta ardoa ere dastatu zituzten.



75
URTEURRENA
1935-2010

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es



ILLARRETA
ITURGINZA

TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8
Tel.: 943 361752
USURBIL
illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emaila eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak



- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitza eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Areto futboleko taldeak lehia dira

Buruntza Aldaz H.K. eta Eguzki ISU Leihoak taldeek 2010-2011 denboraldia hasi dute



Buruntza KT Aldaz H.K. taldeak hirugarren urtea du Nazional B mailan.

TXEMA VALLES

Oscar Garcia

Buruntza KT Aldaz H.K.

“Erronka handia dugu aurten”

Buruntza Aldaz H.K. taldeak aste-buru honetan hasi du lehiaketa San Jorge Santurtzi taldeare aurka. Nazional B mailan hirugarren urtea du eta azken urteetan maila mantendu duen arren, aurten helburua lortzea oso zaila dela aipatu zigun taldeko entrenatzaile den Oscar Garcia larunbateko partida baino lehen.

Nola joan da aurrendenboraldia?

Hilabete egin dugu lanean, lan fisikoa izan da gehien.

Hala ere, lagunarteko partida batzuk jokatu ditugu eta torneo bat ere. Taldea ondo ikusi dut.

Nola ikusten duzu taldea?

Taldea oso gogotsu dago, oso motibatu. Aurten erronka handia dugu.

Maila duen jendea etorri da eta sortu den taldearekin oso pozik gaude.

Beraz, berrikuntzak daude taldean?

Bai, horrela da. Guztira hamabost jokalaririk ditugu aurten taldean. Lazko taldeetik bederatzirik jokalaririk mantendu dira eta bost berri etorri dira.

Lau desagertu den Allerru taldeetik datoz. Laz Nazional A mailan lehiatu ziren eta oso maila ona dute. Eta bosgarrena herriko gazte bat da.

Zein da aurten taldearen helburua?

Aurreko urteetan bezala, maila mantentzea izango da. Baina aurten oso zaila dago.

Nolakoa da egoera Nazional B mailan?

Nazional A mailako talde batzuk jaitsi dira eta talde indartsuak dira. Beraz, aurten zailago izango dugu helburua lortzea.

Maila mantentzeko, hiru talde gaintitu behar ditugu sailkapenean. Aste honetan dugu lehenengo partida eta gero pixkanka ikusiko dugu nola doan deboraldia.

Nola ikusten duzu lehenengo arerioa?

San Jorge Santurtzi gure mailako taldea da. Laz ere Nazional B mailan zeuden, baina aurten jokalaririk berriak dituela badakigu. Hala ere, partida berdindua izango dela uste dute. •

Eneko Molina

Eguzki ISU Leihoak

“Taularen erdialdetik gora egotea da gure helburua”

Eguzki ISU Leihoak taldeak aurten maila berria estreintuko du, Euskal Liga. Eneko Molina entrenatzailearekin egon gara taldearen berri izateko.

Nola joan da aurrendenboraldia?

Hiru bat partida jokatu ditugu eta denetarik egon da.

Lehenengoan, Nazional B taldearen aurka jokatu ginen. Nahiz eta 2-1 galdu, ondo ibili ziren mutilak.

Bigarrenengo, gure maila bereko talde baten aurka izan zen eta berdinketa izan zen.

Eta hirugarrenean, maila gutxiagoko taldea izan zen eta 2-0 irabazi ginen. Baina taldea nahizko gaizki ibili zen. Oraindik fisikoki ez gaude ondo.

Berrikuntzarik ba al da taldean?

Lazako talde berdinak jarraitzen du. Jokalaririk berri bat dugu araudia dela eta. Izan ere, 21 urte azpiko 3 jokalaririk izan behar dira taldeetan.

Hala ere, beste bi jokalaririk gehiagoren bila nabil.

Zein da taldearen duen helburua?

Gure esperantza taula erdialdetik gora egotea da. Maila hobea da, baina iaz denboraldi ona egin ginen.

Denborarekin ikusiko da, baina ez dugu uste helburua lortzeko arazorik izango dugunik.

Nolakoa da egoera Euskal Ligan?

Gipuzkoako 5 talde gaude, 2 Arabako eta 8 Bizkaiko. Gehienak maila honetan ibilitakoak dira.

Hala ere, ez dugu erreferentzia handirik. Badakigu talde batzuk ongi prestatu direla, fitxaje ugari egin dituztela.

Nola ikusten duzu lehenengo arerioa?

Hurrengo larunbatean, 18:15ean, Durangoko Kurutzia taldearen aurka jokatzeko dugu. Beste talde batzuk ikusi ditugu jokoan, baina honi buruz, ez dakiguz ezer. •



Eguzki ISU Leihoak taldeak Euskal Ligako lehenengo partida jokatuko da hurrengo larunbatean. TXEMA VALLES

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

AIZE OTANOREN *BEGIRADAK* erakusketa zabalik da irailean zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Asteartea, 27

Bideoforuma

JAINKOAREKIN HIZKETAN filma ikusi eta ondoren, solasaldia egingo da. SANATANA DHARMA YOGA ESKOLA, **19:00etan**, GAZTELANIAZ

Osteguna, 29

Aurkezpena

KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLAREN 10. URTEURRENAREN aurkezpena, MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:00etan**



Nerabeen espazioak

Lasarte-Oriako Udaleko Osasun sailak antolatzen dituen haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien ziklon, Meskal Rosen-ek "NERABEAREN ESPAZIOAK" hitzaldia eskainiko du.

ASTEARTEA, 27
18:00ETAN

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEO
HITZALDI ARETOAN

Hitzaldia

Vashista maisuak OSASUN INTEGRALari buruz hitz egingo du. SANATANA DHARMA YOGA ESKOLA, **19:00etan**, GAZTELANIAZ

Ostirala, 30

Dantza

KUKAI DANTZA TALDEAK KARRIKAN lana eskainiko du, Kale Antzerkia bultzatuz ekimenaren barruan. OKENDO PLAZAN, **19:00etan**.

Kontzertua

LANDARBASO ABESBATZAK Danok Kideren VII. Musika Topaketei hasiera emango die. BRIGITTAREN KOMENTUA, **19:30ean**

Kontzertua

BLAKA taldea donostiarraren rock kontzertua. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**



Larunbata, 1

Kontzertua

LASARTE-ORIAKO VIII. AKORDEOI JAIALDIAN Zero Sette Akordeoi Orkestrarekin batera, JEAN-LOUIS NOTON musikari frantziarra eta KLEZMATICA TRIO Valladolid-eko hirukotea arituko dira. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:30ean**. **Sarre-ra, 2 euro.**



Osteguna, 6

Hitzaldia

Osasun sailak antolatzen dituen haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, JOSUNE MARTIRENA "HAURRAK, POSIBLE OTE DA ESKATZEN ZAIENA LORTZEA, ZIGORRIK ETA MEHATXURIK GABE?" gaiari buruz arituko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**.

Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00 eta
arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbatetan itxita

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Urritik aurrera,
ostiralero programa!**

FMko 105,5-ean izango gaituzue
ostiralero 9:30etik 10:45era

Oharrak

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitetzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Buruntz-Azpi elkarteak

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, elkartearen ohitura den ehiza eta arrantza saileko sariaren banaketa urriaren 8an izango dela.

Sari banaketa baino lehen egiten den afarira joan nahi duten bazkideek izena ematen behar dute elkartearen. Honetarako zerrenda bat egongo da eskuragarri.

Ehiza postuak

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, Linea Benedikako ehiza postuen zozketak hasi direla. Hauek egunero egiten dira, 20:00etan Buruntz-Azpi elkartearen.

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, irailaren 30an Lasarte-Oriako Etxerategi kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaltxerategiaren aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiari parte hartu dezaten.

Artista eta musikariei deialdia

Xpressionk Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako musikari, aktore eta edozein esparruko artistak, kultur etxeko kafetegiko eta Jalgi Kafe Antzokiko ekimenetan parte hartzeraz gonbidatu nahi ditu.

Elkartearekin harremanetan jartzeko jokin@xpressionk.net helbidera mezu elektronikoa bidali edo 943 368 137 zenbakira deitu.

Zaharren omenaldiko bazkariko txartelak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte zerbitzuetako sailak jakin arazi du urriaren 2an izango den zaharren omenal-

diko bazkariko txartelak agortu direla.

Udal Dantza Eskola

Lasarte-Oriako Udal dantza eskolak urriaren 3an emango die hasiera aurtego ikastaroari. Heldu, zein gaztetxoei zuzendurik dauden ikastaroak dira dantza eskolak eskaintzen dituenak.

Matrikulatzeko epea irailaren 30a arte izango da irekia, Kulturetxeko 3. solairuan.

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitetzte!

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Autobusa KMK 2011-ra

Ttakun K.E.-k urriaren 2an Azepeitian antolatu den KMK 2011-ra joateko autobusa antolatu du. Goizeko 09:00etan aterako da Jalgi Kafe Antzoki ondotik.

Txartelak Jalgi Kafe antzokian eta Ttakun-en daude eskuragarri.

14 euro balio dute txartelak eta elkartearen bazkideentzat 12 euro dira, beti ere, Ttakuneko bulegoan erosten badituzte.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Imanol Kaskante Arraunlari eta udaltzaina

Udaltzain olinpikoa

- Imanol Kaskantek urrezko eta zilarrezko domina lortu ditu polizia eta bonberoen olinpiadan
- Irene urakanak buruhauste handiak sortu dizkie antolatzaile zein kirolariei New York-en

Imanol Kaskante herriko udaltzainak esan dezake Joko Olinpiko batzuetan izan dela. Abuztu amaieran New Yorken izan zen Polizia eta Suhiltzaileen Olinpiar Jokoetan eta bi dominarekin itzuli da. Arraunlari izana denez -San Pedro, Astillero, Hondarribia eta Urdaibain egin du arraun-, ergometroan aritu da Joko Olinpikoetarako bereziki prestatu duten Jakob Jabits Manhattan-go kirol zentroan. Gorabehera dezente eduki zituzten antolatzaileek dena taxuz kudeatzeko. Izan ere, Irene urakanak ordutegietan aldaketa nabarmenak egitera bultzatu zituen antolatzaileak eta hainbat kirol froga bertan behera utzi behar izan zituzten.

JON ALTUNA EGITEGI

Emaitza bikainak lortu ditu jaiotzez sanpedrotarra den herriko udaltzainak. Ergometroko hiru probatan aritu da, bakarkako 2000 metrokoan, eta binakako 1000 metro gizonetakoan zein binakako 1000 metroko proba mistoan -arraunlari bakoitzak 500 metro osatu behar ditu-

Bakarkakoan, zilarrekin konformatu behar izan zuen, bera baino denbora hobea egin baitzuen suediar arraunlari batek. Paradoxikoki, podiumeko hirugarren postua beste suediar batek eskuratu zuen. Irabazteko itxaropenik ba ote zuen galdetuta, Imanol Kaskantek esan du ez zekiela irabazteko gai izango ote zen, baina entrenamenduetan eginitako testetan "lehen postuetan" ibili zitekeela bazekiela.

Gainera, Irene urakanak eragindako ordutegi aldaketek

errekuperazio denbora "oso nabarmen" mugatu ziotela eta froga artean berez izan behar lukeen atsedena faltan bota zuela adierazi du. "Lau egunetan egin behar genuena, bitan egin dugu, pentsa".

1000 metroko frogetan berriz, aurpegia eta ifrentzua ezagutu zituen. Izan ere, mistoan urrezko domina eskuratu zuen Phoenix-eko (AEB) neska baten laguntzaz: "Ez genuen elkar ezagutzen bertara joan aurretik, baina batera jarri gintuzten ergometroan aritzeko, eta lehen postua erdietsi genuen", dio Kaskantek.

1000 metroko gizonetakoan frogan berriz, zorte txarra izan zuten. Irene urakanak sortutako gorabeherengatik, bere kidea ez zen konturatu orduz aldatu zutela haien froga, eta ezin izan zuten finala jokatu: "Bere bakarkako froga eta gurearen artean

tarteko bat zuela pentsatuta, zerbobait jatera joan, eta etorri zenerako ordua pasata zegoen", esan du Kaskantek, penaz.

Bidaia gogoangarria

Gustura mintzo da AEBetara eginiko bidaiaz. Esperientzia "oso positiboa" izan dela dio, polita, eta aukera edukita, errepi-katuko lukeela aitortu du. Abuztu hasieran, izen emate orria bete zuen Internet bidez. Berekin batera New Yorkera joan da

400 bat polizia eta suhiltzaile aritu dira proba desberdinak jokatzen Olinpiadek iraun duten bi egunetan, abuztuaren 30 eta 31 egunetan, hain zuzen.

Joko Olinpikoetara "edo zein" joan daitekeela dio. Gero, han bertan sailkatze froga batzuk egiten dituzte, eta onenek bakarrik dute dominen borrokan aritzeko ohorea.

Erlojuaren aurka prestatu

Prestaketari dagokionez, denboraz larri xamar ibili dela adierazi du, berandu pentsatu baitzuen Joko Olinpikoetan parte hartzea. Aur-

ten bertan utzi dio arraunlari izateari eta sasoa ez galtzeko, egunero egiten zuen San Pedrotik Donostiarako bidaia, gimnasioan gogor entrenatzeko: "Prestakuntzarekin berandu xamar ibili naizenez, goiz eta arratsaldeko saio bikoitzak egin behar izan ditut nire mailarik onena harrapatzeko. Hori nahiko arriskutsua izaten da, nekea pilatu eta lesioak izateko aukerak bikoiztu egiten baitira", dio Kaskantek.

Prestatzaile fisiko baten agindupean aritu da, eta gogor entrenatzen aritzearen fruitua jaso du Olinpiar Jokoetan.

Laguntza ekonomikorik ez

Bidaia bere osotasunean autofinantzatu behar izan zuen Imanol Kaskantek. Ez zuen inolako diru-laguntzarik jaso erakundeen aldetik eta aurrera begira, udallexean laguntza ekonomikoa eskatu duela adierazi digu, hurrengo Olinpiar Jokoetan parte hartzea errazteko: "Hori gutxi balitz, ez dago inolako sari edo konpentsazio ekonomikorik dominaren bat ateraz gero, eta pena da egia esan", dio Kaskantek.

Aurtengoa jaso duen babes bakarra, Dyalvo Sport enpresarena izan da. Jantziz hornitu zuen herriko udaltzain olinpikoa, eta esker ona adierazi nahi izan zion Derioko enpresari. •



Imanol Kaskante sanpedrotarra hainbat trainerutan ibilia da arraunlari eta prestatzaile.

Kilometroak

Urriaren 2an

KMK2011 AZPEITIA
EUSKAL HERRIA

klik!

Txartelak salgai **Jalgin** eta **Ttakunen**
14 euro **Ttakun-eko** bazkideek 12 euro **bulegoan**

AZPEITIARA
JOATEKO
AUTOBUSA

Urriaren 2an
09:00etan
Jalgi parean



■ Kulturako Saila

Geltoki kalea 4 · Tel.: 943 371448 · kultura@ttakun.com · www.ttakun.com · Lasarte-Oria